

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Pilar Arregi Garate

*Elgoibar,
Gipuzkoa
(1918-2008)*

Aurkibidea



Biografia



Elgoibarren jaio zen eta bertan ikasi zuen. Gerra zibilean, bere gizonarekin batera Kataluniara heldu zen, eta Pirinioak gurutzatuz, Frantziako "Argeles sur Mereko" errefuxiatu eremuan egon ziren. Aste batzuetara, Pabe ondoko herri batera joan ziren lanera. Han jaio zen beren lehenengo alaba. Bigarrenaren zain zegoela, 1940an, Espainiara itzuli ziren. Gizona kartzelan egon zen lehenbizi, eta "Batallón de Trabajadores"en ondoren. Eibarren bizi izan ziren urte batzuetan, baina 1950eko hamarkada hasieran, Mexikora joan ziren bizitzera, eta han bizi zen Pilar. Hizkeran ere nabari zitzaion hori, gaztelaniaz hitz egiteko joera eta azentu berezia zuelako.

Zintak

EGB-020

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2007-07-17
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Transkribatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin
- **Emalea:** Sarasua Aranberri, Asier

Pasarteak

1. Aita azkoitiarra eta ama Elgoibarko "Pikantenekoa"

- **Erref:** EGB-020/002
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:00:40. **Bukatu:** 00:03:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Elgoibarren jaio zen. Aita azkoitiarra zen eta ama bertakoa, baina 7-8 urte zituela hil zitzaion ama eta lau ume geratu ziren aitarekin. Ama "Pikantenekoa" zen. Hauek Urasandin etxe bat zuten. Errekaren beste aldean sagasti bat omen zuten eta hura batetik bestera pasatzeko ze sistema zuten azaltzen du.

2. Gerraostean senarra non zegoen ez zekiela egon zen

- **Erref:** EGB-020/006
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:08:10. **Bukatu:** 00:11:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

<p>Gerraostean, errazionamendu garaian, kalean ezer ez zegoen eta izebarengana joan zen baserrira bi alabekin. Senarra non zegoen ere ez zekien, lehenengo Frantzian eta gero Espainian kontzentrazio-esparruetan aritu zen lanean. Behin senarra bisitatzeraz joan zen. Orduko bizipenak.</p>

3. Kontzentrazio-esparruetako egoera

- **Erref:** EGB-020/008
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:13:05. **Bukatu:** 00:15:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Politika » Jarrera politikoak » Sozialistak

Laburpena:

<p>Bere senarra sozialista zen. Kontzentrazio-esparruen inguruko kontuak azaltzen dituen liburu bat aipatzen du. Hango egoera gogorra omen zen. Beraiek arropa guztiak ur irakinetan garbitu eta eguzkitan lehortzen zituzten eta ez zuten zorririk izan. Ez zegoen komunik eta edateko ura ere itsasotik hartzen zen zuzenean.</p>

Transkripzioa

-Bera (aita) zer zan, sozialistia?

-Bai. "En el libro ese se lee, casi todos los eibarreses eran de la UGT y socialistas. Oso ondo dao liburua, barri-barrixa da, eta esaten dau "todos los campos de concentración que hubo. Pero no dice ni la mitad de lo que pasó allí. Los piojos y la sarna y. Nosotros no agarramos nada. Teníamos un cuidao...". Katxarro zikin bat gekagun, eta beste katxarro bat, sua emon han... (erderaz jarraizen du).

-Garbi mantentzeko, ezta?

-Ta ez komunik, ez ura... "Qué cochinada de agua bebíamos...". Plaian.... (erdaraz).

-Zuek ezkondu...

-Ezkondata genden, bai, bai.

-Bera gero gerran.

-Gerran, bai, bai. Fronteria kruzau genduan, "usted para aquí y usted para allá". Ni Elgoibarrera, ta bera eruan zeben. Ez dakit zenbat denpora jakin be ez nun zeuan. Ta gero azaldu zan hor herri horretan. Zer herri zan. Es muy muy oído.

-Aranda de

-Aranda ... no. (erderaz).

4. Familiako baten laguntza trenean itzultzeko

- **Erref:** EGB-020/010
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:16:55. **Bukatu:** 00:17:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:

<p>Gerraostean Donostiatik Elgoibarrera etorri behar zen batean tren-geltokian familiako bat ikusi zuen (Kleto Rementeria) eta hark lagundu egin zion.</p>

Transkripzioa

-Haura zeuan faktoria, faktoria edo zeoze estaziuari, ta zeuan Donostian. Nik segiduan ikusi neban. "Se me vió el cielo abierto. 'Ay, ayúdame, ayúdame!' Nik zesto haundi batekin dana. Eta dirua gitxi. Ta "Quiero ir a Elgoibar". "No no te preocupes". (Erdaraz jarraitzen du). Anacleto Rementeria. Roken laguna zan. Nik orduan ez nekixan, parentela ezta batere. Bakarrik hori, Roken laguna zala; ta ikusi nebanian, u!

5. Bere senarra abiazioan egon zen; mendiz pasa ziren Frantziara

- **Erref:** EGB-020/011
- **Iraupena:** 0:05:10. **Hasi:** 00:17:50. **Bukatu:** 00:23:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:

Bere senarra Armeria Eskolatik abiazioko eskuadrilara eraman zuten Murziara. Bi hegazkin mota zeuden: bonbak botatzen zituztenak eta defentsarakoak. Handik Kataluniara joan ziren. Han mugaz beste aldera eraman nahi izan zituzten autobusean, baina Frantziak ez zituen mugak irekitzen eta mendiz, Pirinioak zeharkatuz, pasa zuten muga.

6. Mendiz pasa zituzten Pirinioak, Frantziara joateko

- **Erref:** EGB-020/012
- **Iraupena:** 0:03:25. **Hasi:** 00:23:00. **Bukatu:** 00:26:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:

<p>Mendiz, Pirinioak zeharkatuz, pasa ziren Frantziara. Abiazioan bazeuden denentzat botak, nahiz eurentzat handiegiak izan, eta haiek jantzita, manta bat bueltan eta maleta sokarekin lotuta igo zuten mendia. Mendi puntara iristean eibartar batzuek esne kondentsatua eman zien jateko. Beraiek 4 ziren, baina jende gehiagok ere gauza bera egin zuela ikusi zuten.</p>

7. Frantziara heltzean poliziarekin gertatutakoa

- **Erref:** EGB-020/013
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:26:25. **Bukatu:** 00:29:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:

Mendia jaistean poliziek gizonak kontzentrazio-esparruetara eramaten zituzten. Poliziak senegaldarrak omen ziren, gizonezko beltz handiak. Besteek zenbait gauza eramaten zituzten bitartean bera maletak zaintzen geratu zen. Polizia senegaldarrek maletak kendu zizkioten. Jendarmeriara joan eta han aurkitu zituzten maletak. Honen inguruko kontuak. Emakumeak ere azkenean kontzentrazio-esparruan sartu zituzten.

8. Frantziako kontzentrazio-esparruko egoera

- **Erref:** EGB-020/014
- **Iraupena:** 0:04:30. **Hasi:** 00:29:00. **Bukatu:** 00:33:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:

Emakumeak ere azkenean kontzentrazio-esparruan sartu zituzten eta denak batera egon ziren hondartza ezagun batean. Bi bikoteek bina manta zituzten; bata azpian jartzen zuten eta beste tapatzeko. Abiazioko kapitain izandako donostiar bati gertatu zitzaiona. Jatekorik ez zieten ematen, alanbreen gainetik ogi batzuk botatzen zizkieten, baina emakumezkoek ez zuten bat ere harrapatzen.

9. Kontzentrazio-esparrutik Monzonek atera zituen

- **Erref:** EGB-020/015
- **Iraupena:** 0:03:45. **Hasi:** 00:33:30. **Bukatu:** 00:37:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

Egoera txarrean zeuden eta bere senarra Monzonengana joan zen. Emakumeak atera egin zituzten eta Eusko Jaurlaritzaren egoitza batera eraman zituzten. Handik piskatera gizonak ere atera egin zituen Monzonek, Tolosa ondoko herri batera eraman zituen lan egitera. Eibarko eta Soralezeko emakume batzuk ere joan ziren lanera, makinak erabiltzen bazekiten eta.

Transkripzioa

-Pilar, lelengo egunetan ez zan egongo organizaziñorik eta,
-Ezebez. baiña gero...
-Baiña gero egunetara ta hasiko zan organizatzen.
-Gu han genden artian ez. Gero bai. Liburuan ipintzen dau. Harek gure lagunak, eta Rikardok esaten du "De eso aquí no se habla más. Ahí se acabó". Era terrible, e. "Aquí se acabó". Ez genduan itten horren zerik batere ez. "Se acabó aquí eso".
-Zenbat denpora ein zenduen?
-Asko ez baiña bastante. Gero altabozetik hasi zan Monzon: "Los vascos no se qué..." Ta nere senarrak esan zeban: "Joan in bihar gara", ta esan zion: "Ni ez najoiak kasorik be ez diou ingo. Esan bai hor, ta ez dakit zer ta...". Era muy... A todo lo tenía. "Ba ni banajoiak -le dijo Ricardo- hik nahi duana ein". Joan in zan azkenian. Esan zion: "tenemos las mujeres aquí". "Son mujeres de veras?, estáis casaos? Ezkonduta zagozie?" "Bai, papelak nahi dittuzu ala?". "Ez, ez". Baiña esan ei zion: "Zuek eibartarrok gehixen eitten dozue euskeraz, baiña txartuen. Baiña ez dio ardura, e. Hola segidu". Yo siempre he dicho que fue nuestra salvación Monzon. Esan zion prest egoteko, zortzi egun barru edo lehenao etarako... "que nos sacaría". Eta halaxe in zaban. Halako baten "Que se presenten en no sé qué lugar... Hantxe juan giñan ta autobus batian en una residencia que pagaba el Gobierno Vasco. Qué de dinero tenían, Maite. Jo, haura zan. Ez hori bakarrik, e.
-Ha paraisua izango zan zuendako, ez?
-Bai, guretzako izan zan, bueno, bueno... Refujixo baten, ta han egon giñan ez dakit zenbat denpora, ta gero Monzonek etara zittuan gizonak be bai lanera. Aroudy Pau-n onduan dago, herri txiki bat da, eta han zeuan abiazioko, abioiak itten zittuen... Uste dot oin be eitten dittuela abioiak han. Dago cerca de Toulouse... Ta han sartu zittuan biharrera, ta sartu zittuanian ba "tenian dinero, les pagaban bien. Porque dijeron: o nos pagan como a los franceses o nosotros no hacemos nada". Ta halaxe ein zeбен.
-Baiña eurak bazekixen lan hori eitten, ez?
-Ba ba, horreaittik etara zittuen eurok, euren billa juan zian. Andrazkuak be bi edo hiru que sabían manejar, eibarresas que sabían manejar las herramientas, que yo en la vida había visto (....)
-Eibarko arma fabriketan...
-Bai, biharra itten zeбен, bi zian. Dos hermanas, bai. Gero beste batzuk zian Plazenziakuak edo.

10. Autobusean bidali zuten Biarritzera, umea izatera

- **Erref:** EGB-020/017
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:38:50. **Bukatu:** 00:42:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Osasun-zentroak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:

<p>Lanean egon arren, ez zieten uzten herritik irteten. Azkenean nekatu egin ziren eta libre ez baziren ez zutela lanik egingo esan zuten. Horrela aske utzi zituzten. Gero gerra amaitu zenean etxera itzuli behar izan zuten. Frantzian

zegoela umea izan behar zuen eta Eusko Jaurlaritzako ospitale batera bidali zuten Biarritz ondora. Han gerran zauritutako ugari ikusi zituen.</p>

11. Umea izan eta astebetera autobusean buelta

- **Erref:** EGB-020/019
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:43:25. **Bukatu:** 00:46:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:

<p>Bakar-bakarrik joan zen umea izatera Biarritzera. Justu bere urtebetetze egunean jaio zen, gainera, nahiz bera ez zen konturatu. Aste bukaeran senarra joan zitzaion, eta umeak 8 egun zituela autobusean itzuli ziren. Umearentzako gauzak ospitale ondoan zegoen "Villa de Madrid" dendan erosi zituen.</p>

12. Itzultzean, alokairuan bizi izan ziren umearekin

- **Erref:** EGB-020/020
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:46:15. **Bukatu:** 00:48:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:

<p>Itzuli zirenean senarrak etxe bat hartu zuen alokairuan eta hara joan ziren umearekin. Etxea alkatatu zien frantziar familiaren inguruko kontuak. Ondo konpontzen ziren familiarekin, baina herritik urrun zegoen etxea eta gerora erdigunean zegoen etxe batera joan ziren. Zerbait erosi behar zutenean batzuetan Pora joaten ziren, hurbil zuten eta.</p>

13. Muga pasatzeaz bat, berriz kontzentrazio-esparrura preso

- **Erref:** EGB-020/022
- **Iraupena:** 0:03:30. **Hasi:** 00:50:30. **Bukatu:** 00:54:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

<p>Gerra amaitzean etxera itzuli behar ziren. Hasieran zalantzak izan zituzten harrapatu egingo zituzten beldurrez, baina azkenean muga pasatu zuten. Hasieran Iruneraino etorri ziren. Euskadiko pezeta batzuk zituen eta beldurrez bota egin zituen. Mugara heltzearekin batera, gizona atxilotu egin zioten eta hilabeteetan ezer jakin gabe egon zen. Espainiako kontzentrazio-esparru txarrena izan omen zenean egon zen.</p>

14. Gerraostean Eibarren bizi izan ziren

- **Erref:** EGB-020/023
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:54:00. **Bukatu:** 00:56:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

<p>Muga pasatu eta senarra eraman ziotenean Elgoibarrera etorri zen. Hasieran bakarrik egon zen, baina gero izeba batengana joan zen baserrira. Kalean ez zegoen ezer eta han, behintzat, jatekoa zuten. Ez zekien senarra non zegoen kontzentrazio-esparrutik idatzi zion arte. Gerraostean Eibarren bizi izan ziren. Eibar guztiz txikituta zegoen.</p>

Transkripzioa

-Gero basarri batera joan nitzan. Tia bat nekan Elgoibarren basarrixakin ta esan ei zian behin: Ez dozu nahi nerekin hara gora etorri? Ume bixak. Yo dije, si te vas, Pilar, tienes leche, tienes huevos... Hamen ez euan ezer, ez euan. Ogi zikin bat, que no sé ni de qué estaba hecho. Ta bueno, joango naiz edo ez naiz, joan ein nitzan. Ez nekixan nun zeuan, e. Ricardo juan zan eta kitto. Hasta que me escribió... de ese lugar. Ta gero joan nitzanian ikustera ta esaten dizut ba: "Deja de llorar y levanta el brazo". "No voy a levantar", esan neban nere artian. No levanté, no levanté nunca. Rikardok esaten zeban: "Yo he levantao por todos, así que mis hijas no van a levantar. Y les metimos también en la escuela porque... fue más que nada por eso, para que no levanten el brazo. Arraguetan bizi giñan, 19, numero 19. Panaderixa badao ba, hantxe bizi giñan bigarren pisuan. Beran tia zan panaderia, Unanue, Dolores Unanue. Beste tia bat zan ... (erderaz). Halaxe joan zan eta segiduan esan zion baietz. Etxia hor dauala.

-Eibarrera joan ziñazien? Destrozauta egongo zan, ez?

-Bai, bai. "Regiones desbastadas" zekan izena Eibarrek. "Regiones desbastadas", ez zeuan batere ez. Gero presuak hasi zian, eruan zittuen preso mordua, ta harek eitten zeбен los escombros y las... Todo era un desastre. Pero mira ahora...

15. Mexikora joateko ez zieten pasaporterik eman nahi

- **Erref:** EGB-020/024
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:56:25. **Bukatu:** 01:00:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhес egin beharra

Laburpena:

Senarrak hasieratik zuen gogoan Mexikora alde egitea, beldurra zuen eta. Senarrak bazuen lana Mexikon, koinatuak lehendabiziko josteko makinen fabrika zabaldu baitzuen bertan. Hasieran Juan de los Toyos-i eskatu zion Mexikora joateko biletea, baina honek ukatu. Pasaportea ere ez zieten ematen "desafecto al régimen" zela esaten zioten eta. Azkenean eman zizkieten pasaporteak eta Mexikora joan ziren.

16. Galarragak jarritako fabrikara lanera Mexikora

- **Erref:** EGB-020/025
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 01:00:00. **Bukatu:** 01:00:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lantegiak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra

Laburpena:

<p>Galarraga zen josteko makinen fabrika jarri zuena Mexikon eta senarra bertara joan zen lanera. Hilabete egin zuten Mexikora bidaian.</p>

Transkripzioa

-Fabrikia zer zan, Galarragan fabrikia?

-Badakizu Galarraga ziala ala?

-Ez dakit ba. Izan leike Alfak...

-Alfako makinak los Galarraga hicieron. Estaban cosiendo a máquina. Qué haremos? Y que le dijo: A, mira, vamos a hacer máquinas de coser. Y luego les dieron una patada Charlot. Gerria urten zebanian. Bai, harek ein zeban.

-Ta Mejikon ein zeben?

-Mejikon in zeban, ta gizona joan in zan. Juan ein giñan. Barkuan hillebete.

-Juteko.

-No iría otra vez... Y fui por culpa mía. Nik esan neban, ni abioian? Mira ahora qué de viajes. Yo un avión? Estáis locos todos. Yo no...

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-03-21

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com